



**2017KO ABENDUAREN 19KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hemeretzi, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko azaroaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- GURUTZEKO BERRURBANIZAZIOKO 4. FASEAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA.-


Gurutzeko berrurbanizazioa, 4. fasea, lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak, bigarren obra egiaztatzea egin dute. Bigarren obra egiaztatze honen zenbatekoa EHUN ETA HAMASEI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA ZENTIMO (116.490,80€) takoa da. Lanak, obra hau aurrera eramateko Iparragirre S.L., Orsa S.L. eta Iturrioz S.A.k osatutako A.E.B. ari da burutzen.

Udal arkitekto teknikoak obra-egiaztatze hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, hirigintza obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, aho batez, Gurutzeko berrurbanizazioa, 4. fasea lanen bigarren obra-egiaztatzea onartzea erabakitzen du.

IV.- LANPOSTUEN BALORAZIOA.-

Azken urte hauetan Lazkaoko herriak izan duen eraldaketak alde batetik, eta administrazio jardunak orokorrean, eta beraz baita ere Lazkaoko Udalean, izandako aldaketek



bestetik, eta guzti honek berekin ekarri duen udal langileen lanaren aldaketa kualitatibo nahi kuantitatiboak, Udal lanpostuen balorazio azterketa bat egitera eraman gaitu.

Hau horrela eta udal langileei aurrez horren berri eman eta gero, udal lanpostuen balorazio hau Consultores de Gestión Pública enpresaren aholkularitzarekin egin da, eta horretarako bere espedientean aurkitzen den baloraketarako eskuliburua erabili da.

Lanpostuen balorazio hau onartuko balitz, udal honen lanpostuen zerrendan txer-tatuko litzateke eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango lituzke ondorioak.

Guzti hau honela eta udal gobernantza eta ogasuna, pertsonala eta kontratazio batzordeetan aurrez informatua izan ondoren, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Consultores de Gestión Publica S.L.k egindako txostenean jasotzen den, eta bere espedientean dagoen, lanpostuen balorazioa onartzea.
- 2.- Udal langileei akordio honen berri eman eta abenduaren 30a arteko epea ematea alegazio ondorioetarako.
- 3.- Alegaziorik egon ezean onarpena behin betikoa bihurtuko da.

V.- UDAL LANGILEEN PLANTILLAN PLAZA BERRI BAT SORTZEA.-

Udal honek bere funtzionario pertsonalaren barne Administrazio Bereziko eskalan, Zerbitzu Bereziakotako azpieskalan, Ofizioetako Pertsonala motan, Zerbitzuetako Koordinatzaile plaza sortzeko asmoa du, gaur egungo pertsonalaren eskala, azpieskala eta mota bereko Zerbitzuetako Arduradun Nagusia plaza amortizatuz plaza hori okupatzen ari den pertsonak erretiroa hartzen duenean.

Sortzea planteatzen den plazaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Izena: Zerbitzuetako Koordinatzailea
- Eskala: Administrazio Berezia
- Azpieskala: Zerbitzu Bereziak
- Saillapen Taldea: A₂ (30/1984 Legearen B taldea)
- Ordainsari maila: Destino Osagarria 21. mailari dagokiona.
- Hizkuntza eskakizuna: 3.a
- Derrigortasun data: sortzea erabakitzen deneko eguna.
- Lanpostuaren betetze sistema: lehiaketa-oposizioa

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioen Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak aldeko txostena eman dio hizkuntza-eskakizunari dagokionez.

Gaia udal gobernantza eta ogasuna, pertsonala eta kontratazio batzordeetan informatua izan da.

Guzti honen aurrean eta hazienda, pertsonal eta kontratazio batzordearen proposamenez, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:



- 1.- Akordio honen aurrekarietan azaltzen den ezaugarriak dituen zerbitzuetako koordina-tzaile plaza sortzea.
- 2.- Gaur egungo eskala, azpieskala eta mota bereko Zerbitzuetako Arduradun Nagusia plaza iraungitzeko gisa aitortzea.

VI.- 2018KO AURREKONTUA.-

Jarraian 2018 urterako aurrekontua aurkeztzen da osoko bilkurara bere onarpenera-ko. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena har-tzen ditu bere barne.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Alkateak onarpenera aurkeztutako 2018ko aurrekontuaren azalpena egiten du. Azalpen orokorra egiten du, kapitulukako zenbakiak emanez eta inbertsioen kasuan hauen xehetasuna eginez.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du aurrekontu honek aldaketa gutxi duela iaz onartutakoarekin alderatuta, eta iazkoarekin ez zirela ados egon. Gehitzen du aurre-kontu honetan ere iazko kudeaketaren errepikapena eta iazko kudeaketaren aldeko apus-tua ikusten dutela, eta funtsean beraiek planteatzen dutenarekiko kudeaketa eredu ezber-dinen aurrean aurkitzen garela. Gehitzen du, adostasunak ere badaudela eta horietan bi-delagun izango dituztela, baina adostasun hauek ez direla nahikoa aurrekontu oso baten onarpenean eta beraz ezezkoa emango diotela.

Alkateak erantzuten dio esanez kudeaketa moduarekin ados ez egoteari buruz ulertzen duela zero kreditu aldaketari buruz ari direla, eta gehitzen du aurrekontu honetan planteatzen dena historikoki horrela egin izan dela gehiagotan ere eta iazko legegintzal-dian ere mantendu zela, eta hori lehen aipatu duen zuhurtasun horren barruan.

Gaiaz eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamena-ren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ) eta aurkako sei botoz (EH Bildu), ho-nako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2018 urterako udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako labur-penak honako hauek dira:

2018KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENENKO ZERGAK	1.443.600,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	120.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.488.215,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.698.000,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	37.027,00 €

VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	35.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	271.000,00 €
		SARRERAK GUZTIRA	7.092.842,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.401.544,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.685.178,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	15.000,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	718.620,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	350.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	500.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	151.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	270.000,00 €
		GASTUAK GUZTIRA	7.092.842,00 €

2018KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	665.570,00 €
		SARRERAK GUZTIRA	665.570,00 €

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	30.000,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	45.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	60.570,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	0,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	530.000,00 €
		GASTUAK GUZTIRA	665.570,00 €

2018KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.443.600,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	120.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.488.215,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.698.000,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	37.027,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ-	



	TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	665.570,00 €	
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	35.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	271.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA		7.758.412,00 €	

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.401.544,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.715.178,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	60.000,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	718.620,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	350.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	560.570,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	151.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	800.000,00 €
GASTUAK GUZTIRA		7.758.412,00 €	

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VII.- 2018KO PLANTILLA ORGANIGOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2018ko Udal Langileen Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, dokumentu hauek aztertu ondoren, aho batez, 2018ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egiten ditu.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hemeretzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.